



## Euskararen berri OLAtu gainean

### 2019ko EKAINeko ALBISTEAK

#### [Live Transcribe: euskaraz esan, eta testua transkribatu mugikorrak](#)

Googleren transkripzioak egiteko aplikazio berria da, Android mugikorretarako, Live Transcribe tresna. Euskara ere badu ezagutzen duen hizkuntzen arabera, eta nahiko ondo dabilela dirudi. Euskaraz hitz egiozu mugikorrari, eta testua lortuko duzu. Lainoan Googlek jada eskaintzen zuen Cloud Speech-to-Text tresnaren garapen bat dirudi (hor ere probatu daiteke euskaraz nola dabilen).

#### ["Euskaltzaleen autoeraketa indarraz" \(Jon Sarasuaren hitzaldia\)](#)

Jon Sarasuak 2019ko urtarrilaren 31an Bilbon eskainitako hitzaldia, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Topaldia jardunaldien barruan. Hitzaldiaren sinopsia Non gauden eta nora goazen galdetzen dugunean, erantzunak sortzeko elementu batzuk egiturazkoak dira, eta beste batzuk abaguneari dagozkionak. Euskararen prozesuak bizi dituen egiturako elementu batzuetan arreta jarri ondoren, une honetako abaguneari dagozkion gogoeta batzuk aletuko ditugu. Datorren hamarraldiari begira nola orientatu ditzakegu gure estrategiak hiztun komunitate moduan? Eta nola kokatu hor euskal komunitatearen geruza autoeratuak duen egitekoa? Galdera horien inguruan osatu nahi genuke solas laburra.

#### [Euskaraldiaren bigarren edizioaren arigune kontzeptua aurkeztu dute](#)

2020ko udazkenean egingo den Euskaraldia ariketa sozialak izango dituen ezaugarriak eta antolaketarako xehetasunak aurkeztu dituzte.

#### [Euskaltzaindiak genero markarik ez duten izen batzuk onartu ditu lehen aldiz](#)

2011n ikuspegi binarioan (gizonak eta emakumeak) oinarritutako izendegia argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Generorik ez duten euskarazko ehunka izenei izaera aldarazi eta ordutik familia askoren buruhauste eta oztopo bilakatu da sailkapen hori. Kritika andana jaso ostean, Euskaltzaindiak izen mistoei atea ireki die. Momentuz, 4.730 izenetatik 445 genero markarik gabekoen zerrendan agertzen dira.

#### [Euskaraz azpidatzitako 10 film Jarrion aplikazioan, etxean ikusteko moduan](#)

Azpitulua Euskaraz webguneko hamar film etxean ikusteko moduan jarri ditugu, Jarrion aplikazioaren bidez. Mugikorreko aplikazioarekin eta Chromecast gailuarekin, ikusi etxeko telebistan film hauek, jatorrizko hizkuntzan, euskarazko azpidatziekin.

#### [Wikipediako 29. hizkuntza da euskara, azken bi urteetan kalitate handiko 800 artikulua berri sortuta](#)

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Wikilarien Kultura Elkarrekin euskarak Wikipedian duen presentzia hobetzeko hitzarmena sinatu zuten 2017an. Elkarlan horrek emandako fruituen berri eman dute goizean, Bilbon. Azken bi ikasturteotan 2.500 ikasle inguruk hartu dute parte hobetze prozesu horretan eta 42.127 artikulua sortu dituzte: horien artean kalitate handiko 800 artikulua berri, eta beste 1.200 ingururen kalitatea hobetu dute. Artikulu kopuruaren arabera, Wikipediako 32. hizkuntza zen euskara 2017an; gaur egun, 29.a da. 302 dira guztira. Euskarak baino askoz hiztun gehiago dituztenak bere atzetik daude artikulua kopurutan. Euskarazko Wikipediak 30 milioi bisitari izan zituen iaz —2017an baino 5 milioi gehiago—, eta aurten 100.000 baino gehiago izan ditu hainbat egunetan. Hala, elkarlanaren balantze positiboa egin dute.

